



# GIDARI PROFESIONALENTZAKO HITZARMENIK EZ DUTEN ZEIN ERKIDEGOKOAK EZ DIREN HERRIALDEETAKO GIDABAIMENAREN TRUKEA

## BETEBEHARRAK

- 1º-ESPAINIAN LEGALKI KOKATUTAKO EDO SUKURTSALA DU(T)EN ENPRES(ET)AN 6 HILABETETAN BAINO GEHIAGO GIDARI PROFESIONAL LAN EGIN DUZULA ZIURTATZEA.
- 2º-IBILGAILU MOTORDUNAK ETA ZIKLOMOTOREAK GIDATZEKO ESKUBIDEA KENDUTA ZEIN DAUKAZUN BAIMEN EDO LIZENTZIA ADMINISTRATIBOKI INDARGABETUTA EDO INTERBENITUTA EZ EGOTEA.
- 3º-TRAFIKOARI IREKITAKO BIDEETAN ZIRKULAZIORAKO GAITASUN- ETA JOKABIDE- KONTROLEZKO PROBA GAINDITZEA.

## AGIRIAK

- 1º. **ESKABIDEA:** Trafikoko Buruzagitzetan edo DGT-ren web orrian ([www.dgt.es](http://www.dgt.es)) dagoen inprimaki ofizialean, non bide judizialean zein administratiboan ebatzitako ebazpen judizialen batek gidatzeko eskubidea kendu ez dizuneko aitorpena zein eskatzen dizun mota berdineko edo murriztu, eten edo baliogabetu duten EB edo EEEko beste gidabaimen bat ez duzuneko aitorpena agertzen diren, eta Trafikoko Buruzagietan eskuagarri dagoen **ARGAZKI-TALOIA** beteta.
- 2º. **TASA IL.1: 92,20 €.**Hiru era tasak ordaintzeko: internetez [www.dgt.es](http://www.dgt.es) helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuagarri dago Buruzagietan eta hemen: [www.dgt.es](http://www.dgt.es))
- 3º. **NORTASUN ETA BIZILEKUAREN ZIURTAPENA:**
  - **NAN edo PASAPORTEA:** Indarrean dagoen jatorrizkoa.
  - **BIZILEKU-BAIMENA edo zure herrialdeko NORTASUN AGIRIA edo PASAPORTEA bai eta ATZERRITARREN ERREGISTRO ZENTRALEAN IZENA EMATEKO ZIURTAGIRIA** ere erkidegoko atzerritarrentzat: indarrean dagoen jatorrizkoa.
  - **BIZILEKU-BAIMENA** erkidegokoak ez diren atzerritarrentzat: indarrean dagoen jatorrizkoa.
- 4º. **GAITASUN PSIKOFISIKOKO TXOSTEN TELEMATIKOA** Gidarien Erregistroan **GIDARIEI ARAKETAK EGITEKO ZENTRO** batek jasota.
- 5º. **GIDABAIMEN ATZERRITARRA:** indarrean dagoen jatorrizkoa eta fotokopia.
- 6º. **GIDABAIMENAREN ITZULPEN OFIZIALA GAZTELERAZ,** hala badagokio, non baliotasun eta indarraldia ziurtatzen diren eta gidatu daitezkeen ibilgailuak zehazten diren.
- 7º. **ARGAZKIA:** Atzealde lisoko kolorezko 32 x 26 mm.eko jatorrizkoa, aurretik hartuta, buru estalgabetuaz eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsonaren identifikazioa eragotzi edo oztopa dezakeen bestelako arroparik gabe. Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak jasoko daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaloe ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.
- 8º. **ENPRESAREN ZIURTAGIRIA:** Espainian legalki kokatutako edo sukurtsala duen enpresa batean 6 hilabetetan, gutxienez, gidari profesional lan egin duzula ziurtatuz.
- 9º. **GIZARTE SEGURTASUNA:** 6 hilabetetan, gutxienez, kotizatu duzulako ziurtagiria.



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



*Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagiriaren aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoak markatu, edo egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada, egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.*

(Eguneratua: 22/06/2018)